botika
Medikamentuei buruzko herritarrentzako informazioa

Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

64.zk / 2026

https://www.euskadi.eus/medikamentuen-informazioa-ibotika/

ASMAREN TRATAMENDUA 12 urtetik gorakoentzat

Erreskatea eta mantentzea inhalagailu bakarrarekin!

Asma birikei erasaten dien gaixotasun kronikoa da. Sintoma hauek ditu: eztula, bularreko presioa, txistuak arnastean eta arnasteko zailtasuna.
Asma tratatzeko inhalagailuak erabiltzen dira, medikamentua zure bronkioetara zuzenean eramaten duten gailuak.
Medikamentu bat edo gehiago izan ditzakete:

- Hanturaren aurkakoak (kortikoideak): bronkioetako hantura murrizten dute.
- Bronkodilatadoreak: bronkioak irekitzen dituzte airea pasatzen uzteko

ALDAKETAK ASMAREN TRATAMENDUAN

LEHEN: bi inhalagailuen estrategia

- **Erreskate-tratamendua (eskaeraren arabera)**: bronkioak baino irekitzen ez zuen inhalagailu bat erabiltzen zen. Itolarria berehala arintzen zuen, baina ez zuen hantura tratatzen, eta horrek krisi larriak izateko arriskua areagotzen zuen.
- **Mantentze-tratamendua (kronikoa)**: egunero beste inhalagailu bat erabiltzen zen (bronkodilatadorea eta hanturaren aurkakoa), eta sintomarik agertuz gero, erreskatekoa ere hartzen zen.

ORAIN: Estrategia konbinatua inhalagailu bakarrean
Bi medikamentu konbinatzen dituen **inhalagailu bakarra** erabiltzea gomendatzen da: kortikoide bat (hanturaren aurkakoa) eta **formoterola** (bronkodilatadore bat, erreskateetan azkar eragiten duena eta bere eraginak luzaroan irauten duena).

- **Erreskate-tratamendua**: sintomarik baduzu, inhalagailu konbinatu hau erabiltzen duzu. Berehala irekitzen dizkizu bronkioak, sintomak lehen segundotik geldiarazteko, eta, aldi berean, hanturaren aurkako dosi «estra» bat ematen dizu, berriro ez gaixotzeko.
- **Mantentzea**: inhalagailu konbinatu bat erabiltzen duzu egunero (behin edo bitan, agindu dizutenaren arabera), eta sintomarik agertzen bada, inhalagailu bera erabiltzen duzu erreskate gisa. **Dena gailu bakar batekin!**

Zure medikuak jakinaraziko dizu zein den zuretzat tratamendu egokiena, zenbat aldiz erabili inhalagailua, etab.

INHALAGAILU BAKARREKO TRATAMENDUAREN ABANTAILAK

- **Segurtasun handiagoa**: murriztu egiten du asma-eraso larriak izateko arriskua, sintomak arintzen dituzun bakoitzean hantura ere tratatzen ari zarelako, hori baita gaixotasunaren oinarria.
- **Errazagoa eta erosoagoa**: inhalagailu bakarra erabiltzean errazagoa da hura hartzea (atxikimendu hobea), eta arnasteko teknika bat ikasi besterik ez duzu egin behar.
- **Jasangarria**: ingurumen-inpaktu txikiagoa.



AAK sortutako irudia

KONTUAN IZAN... Medikamentua ahoan gera daiteke eta eztarriko narritadura edo onddoak eragin (kandidiasia). Ahoa urez garbitu beti, inhalagailua erabili ondoren.

EZ AHAZTU... Oso garrantzitsua da inhalagailua ondo erabiltzea. Zalantza baduzu, zure osasun-zentroan, farmazian edo Osasun Eskolan erakutsiko dizute.

Bibliografia:
- GEMA 5.4. GEMA pacientes. Recomendaciones sobre asma [Internet]. Madril. 2024
- Osasun eskola. Asma [Internet].

Egileak: Iñigo Aizpurua, Teodoro Alonso, Rosa Añel, Elena Arias, Judit Becerra, Mónica del Valle, Laura Gancedo, Nagore Lejarza, Itxasne Lekue, Mª José López, Juan Carlos Martín, Oihana Mora, Carmela Mozo, Isabel Porras, Nerea Ullibarri eta Olatz Vergniory.

cevime
centro vasco de información de medicamentos
medikamentu informazioko euskal zentroa

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Fitxa honen helburu bakarra informazioa ematea da, eta inola ez ditu ordezkatzen zure osasun arloko profesionalak emandako gomendioak.
Guztiz debekatuta dago dokumetu hau promozio helburuetarako erabiltzea. ISSN: 2255-3177

botika
Información ciudadana sobre medicamentos

Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Nº 64 / 2026

https://www.euskadi.eus/informacion-medicamentos-ibotika/

TRATAMIENTO DEL ASMA para mayores de 12 años

¡Rescate y mantenimiento con un solo inhalador!

El asma es una enfermedad crónica que afecta a los pulmones. Sus síntomas son tos, presión en el pecho, pitidos al respirar y dificultad respiratoria.

Para tratarla se utilizan los inhaladores, que son dispositivos que llevan el medicamento directamente a tus pulmones. Pueden llevar uno o varios medicamentos:

- Antiinflamatorios (corticoides): reducen la inflamación de los bronquios
- Broncodilatadores: abren los bronquios para dejar pasar el aire

CAMBIOS EN EL TRATAMIENTO DEL ASMA

ANTES: la estrategia de los dos inhaladores:

- **A demanda (Rescate)**: Se usaba un inhalador que solo abría los bronquios. Aliviaba el ahogo al momento, pero no trataba la inflamación, lo que aumentaba el riesgo de crisis graves.
- **Mantenimiento**: Se usaba a diario otro inhalador (broncodilatador junto con antiinflamatorio) y si aparecían síntomas, se tomaba también el de rescate.

AHORA: la estrategia combinada en un único inhalador:
Se recomienda usar **un único inhalador** que combina dos medicamentos: un corticoide (antiinflamatorio) y **formoterol** (un broncodilatador que actúa rápido en los rescates y su efecto dura mucho tiempo).

- **A demanda**: Si tienes síntomas, usas este inhalador combinado. Te abre los bronquios al instante para frenar los síntomas desde el primer segundo y, a la vez, te da una dosis «extra» de antiinflamatorio para prevenir recaídas.
- **Mantenimiento**: Usas un inhalador combinado todos los días (una o dos veces según te lo hayan prescrito) y, si aparecen síntomas, usas el mismo inhalador como rescate. **¡Todo con un solo dispositivo!**

Tu médica o médico te informará sobre qué tratamiento es el más adecuado para ti, cuántas veces utilizar el inhalador, etc.

VENTAJAS DE LA NUEVA TERAPIA COMBINADA

- **Mayor seguridad**: disminuye el riesgo de ataques graves de asma porque cada vez que alivias los síntomas también estás tratando la inflamación, que es la base de la enfermedad.
- **Más fácil y cómodo**: Al usar un único inhalador es más fácil acordarse de las dosis (mejor adherencia) y solo tienes que aprender una técnica de inhalación.
- **Sostenible**: Menos inhaladores se traducen en menos emisiones de carbono para el medio ambiente.



TEN EN CUENTA... El medicamento puede depositarse en la boca y provocar irritación de garganta o la aparición de hongos (candidiasis). Enjuágate siempre la boca con agua después de cada uso.

NO OLVIDES... Es importante utilizar el inhalador de forma correcta. Si tienes dudas consulta en tu centro de salud, en la farmacia o en Osasun Eskola.

Bibliografía:
- GEMA 5.4. GEMA pacientes. Recomendaciones sobre asma [Internet]. Madrid. 2024
- Osasun eskola. Asma [Internet].

Elaborado por: Iñigo Aizpurua, Teodoro Alonso, Rosa Añel, Elena Arias, Judit Becerra, Mónica del Valle, Laura Gancedo, Nagore Lejarza, Itxasne Lekue, Mª José López, Juan Carlos Martín, Oihana Mora, Carmela Mozo, Isabel Porras, Nerea Ullibarri y Olatz Vergniory.

cevime
centro vasco de información de medicamentos
medikamentu informazioko euskal zentroa

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

La información aquí contenida tiene únicamente finalidad informativa y en ningún caso sustituye las recomendaciones de tu profesional de la salud. Queda totalmente prohibido el uso de este documento con fines promocionales. ISSN: 2255-3185